

7. zenbakia

euskaraz
bizi
nahi dut

[illegible]

Txokolatedun egutegiaren salmenta

Aurten ere, Hendaiako ikastolatik txokolate-egutegien salmenta-kanpainan laguntzeko proposamena egin digute.

Abenduaren 1etik 24ra irekitzeko 24 lehiatila ditu eta bakoitzaren atzean Baigorriko Laia txokolategiko txokolatea topatuko duzue.

Prezioa 12 eurokoa da eta **eskaera azaroaren 10a** bitarte egin daiteke [galdetegi hau](#) betez.

Eskaeraren **dirua tutoreari** emango zaio data horretarako.

Egutegiak azaroko azken astean jasoko dira.



Errigora

Hemen da berriz Errigoraren Euskarari Puzka kanpaina, Nafarroa erdi eta hegoaldean lanean ari diren euskalgintzako eragileen (AEK, Sortzen, Ikastolak eta Agerraldia) ezinbesteko lana sostengatzeko aukera.

Batu auzolan erraldoi honetara! [Saskiak](#) eskatuz, balioaren %25a Ager zonaldeko euskalgintzara bideratuko da zuzenean. Ureztatu dezagun euskara denon artean!



HAUR-HEZKUNTZA

Zorriak

HH 3 eta HH4-ko gelatan zorriekin jarraitzen dugu.

Garrantzitsua da, asteburu honetan denok buruak ondo aztertu eta beharrezkoa bada, dagokion tratamendua egitea. [Hemen neurriak](#)



Paperezko poltsa

HH3, HH4 eta HH 5eko ikasleek, urtero bezala, hiruhilabeteko arte lanak etxera eramateko paperezko poltsa bat ekartzea eskatzen da.



2-3 urteko ikasturte hasierako bilerak

Urriaren 30ean, osteguna, arratsaldeko **17:00etan seme-alabaren gelan**, ikasturte hasierako bilera egingo da.

Ez da zaintza zerbitzua izango.

Bilerara haurrik gabe etortzea eskatzen da.



LEHEN HEZKUNTZA

Eskola osasun programa

Gaur **LH 6-ko ikasleei** eskola osasuneko programa barruan dauden ACWI meningokokoaren eta giza papilomaren birusaren kontrako txertoa jasotzeko baimen **orriak sinatuta** tutoreari emateko azken eguna **gaur da**.



LH 2koen irteera

Datorren astean egun osoko irteera egingo dugu Kalezaharrera. Eguna eguraldiaren baitan erabakiko da. Eraman beharrekoak: ura, hamaiketakoa eta bazkaria. Arropa eta oinetako erosoak eramán.



Booktegi

LHko 5. mailako ikasleek Booktegi jaialdian parte hartuko dute asteburu honetan. Euren emanaldia larunbatean izango da, arratsaldeko 16:00etan, Sutegiko aretoan.



DBH

Ez dago oharrik.